



406/2024 EBAZPENA, EKAINAREN 3KOA, GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZAKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILE ETA ERABILTZAILEEI ARRETA EMATEKO LANPOSTUA BETETZEKO DEIALDIA BETE GABE UZTEN DUENA. LANPOSTU HORI PLANGINTZA ETA KUDEAKETAKO ZUZENDARIORDETZAKO ADMINISTRAZIO ETA LANGILEEN ERREGISTRO ZERBITZUAN DAGO, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIAN.

AURREKARIAK

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren apirilaren 17ko 280/2024 Ebazpenaren bidez, Giza Baliabideen Zuzendaritzako administrari laguntzaile eta erabiltzaileei arreta emateko lanpostu bat aldi baterako barne-sustapenaren/zerbitzu-eginkizunen bidez betetzeko deialdia egin zen, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Plangintza eta Kudeaketako Zuzendariordetzako Administrazio eta Langileen Erregistro Zerbitzuan (2024ko apirilaren 24an argitaratu zen webgunean).

EBAZTEN DUT

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Plangintza eta Kudeaketako Zuzendariordetzako Administrazio eta Langileen Erregistro Zerbitzuan, Giza Baliabideen Zuzendaritzako administrari laguntzaile eta erabiltzaileei arreta emateko lanpostua betetzeko deialdian hautagaiak falta direlako, aldi baterako barne-sustapenaren/zerbitzu-eginkizunen bidez lanpostuak betetzeko deialdia bete gabe uztea.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Osakidetzako zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 3a.


Osakidetza
Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS
sin.: Luisa Larrauri Ereñozaga

GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA

